

Maien astronomia

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Iñaki Glez. Garai

Arloa: Astronomia

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2011/12/04

Antzinako maien iragarpenak oso ezagunak dira. Haien arabera, 2012. urtean, Santo Tomas aldera edo, gure munduaren amaiera helduko da. Horrelako iragarpenak egin al zituzten maiek, bene-benetan?

Maien zibilizazioaren garai gorena Kristo aurreko II. mendean hasi zen eta gainbehera IX.ean etorri zen. Yucantángo penintsula, Amerika erdialdekoan, izan zuen erdigune. XVI. mendean, konkistatzaile espainiarrak buru-belarri aritu ziren zibilizazio haren ondarea suntsitzeko ahaleginetan. Maien kodex ospetsuak ere arretaz txikitu zituzten. Lau baino ez ziren libratu suntsiketa basati hartatik.

Konkistatzaileek bazekiten zertan ari ziren. Kodex haiek maien jakinduria biltzen zuten. Zibilizazio baten oroimen historikoa ziren, iraganaldiaren gertaera nagusiak jasotzen baitzituzten, egutegien moduan. Eta maientzat, iraganaldia beren herriaren eta kosmos osoaren historia bateratua zen. Horregatik, astronomia maien zibilizazioaren oinarrietako bat zen.

Chichén Itzá maien hirigune garrantzitsu bat izan zen. Haren hondakinak nazioarteko altxor arkeologikoa dira. Hondar horien artean, *Caracol* izeneko eraikuntza enblematikoa dago. Behatoki bat izan zen. Eta horrek ere maiek astronomian jartzen zuten arreta islatzen du.

Baina zein izan zen maien jakinduria-maila astronomiari buruz? Bikaina, zinez.

Sistema hogeitarra eta zero zenbakia

Monumentuetako inskripzioei eta txikiziotik salbatu ziren lau kodex horiei ezker, badakigu maiak, aztekak edo zeltak bezala, zenbaki-sistema hogeitarraz baliatzen zirela, zenbatzeko hatz guztiak, eskukoak nahiz oinetakoak, erabiltzen baitzituzten. Dakigunez, euskarazko zenbakiak ere sistema hogeitarrean oinarritzen dira.

Gainera, zero zenbakia ezagutzen zuten; hain zuzen ere, bi zero mota. Horren guztiaren ondorioz, errege eta apaiz maiak zenbaki oso handiak erabiltzeko eta egutegi harrigarriak egiteko gauza izan ziren. Izan ere, egutegiena izan zen maien benetako berezitasuna eta artea.

Artizarra, maien gidaria

Maiak hiru egutegi mota asmatu zituzten: egutegi erlijioso (260 egunetakoa), egutegi zibila (365 egunetakoa) eta kontaketa luzeko egutegia (maien jatorriaz gero, igarotako egun guztien berri ematen zuena).

Harrigarria da nola integratu zituzten Artizarra planetaren agerraldiak beren egutegi-sistemetan. Maiak konturatu ziren Artizarra 584 egunero zeruko zonalde berean agertzen zela; batzuetan, mendebaldean eta, beste batzuetan, ekialdean. Horixe da Artizarraren ziklo sinodikoa, hau da, planeta horren posizioa neurtzen duen zikloa, Lurretik behatuta.

Maien zientzian, egokitasun sendo bat zegoen Artizarraren zikloen eta 365 eguneko egutegiaren artean: Artizarraren 5 ziklo sinodikok (5 x 584 egun) eta egutegi zibilaren 8 ziklok (8 x 365 egun) biderkadura-balio bera ematen zuten = 2.920 egun.

Egutegi erlijiosoaren ere bat zetorren kontaketa horiekin:

- Artizarraren 65 ziklo sinodiko: 65×584 egun = 37.960 egun
- Egutegi zibilaren 104 ziklo: 104×365 egun = 37.960 egun
- Egutegi erlijiosoaren 146 ziklo: 146×260 egun = 37.960 egun

Jakina, Artizarraren zikloa, berez, 583,92 egunetakoa da eta urtea 365,24 egunetakoa. Baina, maiak diferentzia horiek zuzentzeko bideak aurkitu zituzten, gutxi gorabehera gure bisurteen funtzio bera zeukatenak.

Egutegi luzearen iragarpenak

Arestian esan dugunez, maiak hirugarren egutegi bat erabili zuten: kontaketa luzeko egutegia. Sistema hori munduaren sorreran hasi eta gertaera kosmiko guztien bilduma kronologikoa zen. Profezien eta suntsiketen istorio horiek guztiak egutegi horren sasi-interpretazioan oinarritzen dira.

Hala ere, maien historian eta astronomian adituen esanetan, haien egutegia eta gurea elkarren artean egokitzea ez da batere erraza. Ikertzaile batzuek adostu zuten maien egutegia edo kontaketa K.a. 3114. urtean hasi zela. Handik abiatuta, gure garaiko zoritxar-iragarleek munduaren akabera 2012an gertatuko dela ondorioztatu dute, maien historiaren ziklo bat orduan amaituko baita.

Baina, behin baino gehiagotan, maien kontaketa luzean adierazitako astronomia-gertaerak (eklipseak...) eta astronomia modernoaren ikerketa historikoa ez datoz bat. Zergatik? Maiak hanka sartu zutelako? Seguru asko, ez. Badirudi maiak gertaera mitologikoak nahita tartekatu zituztela beren narrazioetan. Eta susmo bat ere badago: agian maiak egutegi-erreforma sakon bat egin zuten IX. mende aldera, European historian zehar izan ditugun erreformen antzera.

Bestalde, apokalipsien istorio horiek ez dute zerikusirik maiak bilakaera historikoaz zuten ikusmoldearekin. Izan ere, maien arabera, denboraren ibilbidea ziklikoa da; alegia, heriotza baino, bizitza da garrantzitsuena.

Beraz, datorren urtean ere txistorra lasai asko jateko aukera izango dugula

esango genuke. Egia esan, ez du ematen inor benetan kezkatuik dagoela auzi honetaz.

Alabaina, aitor dezagun maien jakinduria-maila. Areago oraindik, kontuan hartzen badugu haien ondarearen gehiena betiko galdu zela (edo betiko galdu *egin* zutela).